

# TXIRRITXOLA

10. ZENBAKIA 1994. EKO MAIATZA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

GAZTEAK BALEKI, ZAHARRAK BALEZA

## BAKIOKO BASELIZAK



### MARTIN DEVNAREN BASELIZA

*BETI ARRAPALADAN, baina beti beku; batzutan talde guztien lanak batzea luzatzen dalako, bestetan imprimategian arazoak, oraingo tarte luze hau Udaletxeko subentzioa atzeratu dalako.*

*Kontuak kontu TXIRRITXOLAREN finkatzea, hedatzea, dago jokoan eta bultzatzen dogun talde guztiok uste dogu merezi dauela, merezi dogula Bakion Euskal aldizkari bat bizia eta zabala, guztiona. Halan da ze gonbidatua zagozee parte hartzera, bai Euskara Batzordeko kide lez zein zeuen gogoko gaiak eta eritziak bertan agertzeko; beraz prest egon eskero, zuzendu zaitezee Udaletxera eta bertan Euskara batzordearen izenean utz daikezue zeuen aportazioak, iritzia etab...*

**TXIRRITXOLA ZABALIK DAUKAZUE!**

Bakion, inguruko beste herri batzutan baino baseliza gehiago dago. Ez da gauza erraza horren zergatiak ezagutzea baina horrela da.

Erdi-aroan, uri handirik ondino egon be ez egoanean, Euskal Herriko Biztanleek sakabanatuta bizitzen ziren, han-hor-hemengo auzoetan. Sasoi haretakoak dira baseliza asko. Baseliza, auzo bateko baserri eta biztanle guztien lokarria izaten zan; eleiz-ospakizunak eta auzokideen batzarrak egiten ziran tokia.


Herriak eraikitakoak diranez, oso txiroak dira gehienetan eta arte aldetik oso balio gitxikoak.

Bakioko baselizetan bete-betea emoten dira ezaugarri honeek. Baina horrez ganera, Bakion, berezitasun kurioso bat dauke baselizak: inguruko mendien magaletan dagoz kokatuta danak eta euretako bakotza auzo jakin baten eraikita dago, hain zuzen be San Martin Zubiaurren, Santa Ursula Urkizaurren, San Esteban Azeretxon, San Kristobal Bentalden eta gaur egunean desagertuta dagoen Santa Kruz, Basigon.

Jarraituko dau...

*Bakion 94-V-29*

## EUSKERA ETA EUSKERAZ

EUSKARA IKASTEN NON,  
ETA BAKION

Aurton ere badabil Bakiotar talde polit bat ahaleaginean; Euskara ikasi guran 11ikasle 1.urratsean eta beste 6 alfabetatzen.

Era guztietako jendea dago, 20 urteko jendetik hasi eta ia 60urtekora arte. Zergaitik eta zertarako ikasten daben itaundu dautsegu; 1.urratsekoak erdaraz, eta alfabetatzekoek euskaraz emon deuskuez heuren iritziak; Hona hemen:

Creo que es muy importante saber el idioma de tu país; todos los vascos deberían saber o tener conocimientos de Euskera. Quiero animar a la gente a que se apunte porque es muy interesante, entretenido y divertido.

Igor Goti

• El Euskera es muy interesante, un ejercicio de lógica. Si se apuntase más gente habría grupos, todos avanzaríamos más. Y pediría a los "Euskaldun-zaharras" paciencia y que no se rían...

Jone Gangotti

• En un medio como Bakio, donde la vida se puede hacer en Euskera, aprenderlo supone la posibilidad más cercana que tenemos que recuperar para la calle algo tan importante para nuestro pueblo.

Elena Sarasola

• Benetako euskalduna izateko, gure hizkuntza mintzatzen jakin behar dugulako! Euskalduna ba zara erabili Euskara!

Idoia Lliste

• Anima zaitetz, denon artean lortuko dugu gure herria euskalduna izatea.

Tere Iturriaga

Nahiz eta euskaldunak izan euskera ez dakigulako beharden moduan, asko faltatzen zaigu eta. \*IAEKn dugu aukera, anima zaitetzte!\*

Kontxi Jauregiar

• Gure hizkuntzan bizitzeko, hizkuntza politena dalako.

Oscar Bilbao

• Nire herriaren hizkuntza delako. Arrazoi horregaitik nik Euskal Herriko jendea animatuko nuke.

Eva Merino

• Intento aprender Euskera por su singularidad, porque sale de lo común; es como un jeroglífico que poco a poco aprendes a descifrar. Me encanta su diferencia y sería imperdonable que lo dejásemos morir.

Marisa García

## EUSKARA HOBEAN HOBE

Atal barria zabaldu gura izan dogu Txirritxolan alfabetatzen dihardugun ikasleok; geure eguneroko hizkera hobetzea da asmoa eta geuk ikasitakoa zuoi eskeintzea; hiztegia, joskera eta beste hainbat puntu jorratuko doguz sail honetan. Era berean Bakioko zein inguruetakoa berba ta esakera zaharrak biltzea daukagu helburu eta zinez eskertuko geinke zeuen laguntza.

Horra hor hainbat ohar:

## HIZTEGIAN

DISFRAZ:	ANARRU	'DERETXORIK':	ESKUBIDERIK
ALMORZU:	BARAUZTE	'KANTZATA':	NEKATUTA
'BENTANA':	LEIHO	'BAJATU':	JEITSI

## JOSKERAN

OSEAKE:	BADAKIZUE ZER EGIN !
ASIKE:	BAGOAZ !

\* GAINEKO HORREEK BAINO  
ASKOZ EGOKIAGOAK DIRA:

BERAZ, HORTAZ, HALAN DA ZE...

*Bakioko alfabetatze taldekoek.*



## EUSKERA ETA EUSKERAZ

## HABE ETA AEKREN ARTEKO AKORDIOA

Nekeak neke, ondo kostata, baina iritxi da konponbide baterako lehen urratsa. Euskararen egoera ondo ezagutzen eta gehiago sentiduten dabenak poztuko dira; badira baina, bestearen kalteagaz pozten direnak, estropozu eragiten oraindik ere ahalegintzen direnak, horientzat beraz ez da konponbidea pozgarri.... Horiek alderatuz, batean zein bestean Euskara guztiona eta bizirik gura dogunok ekingo dautsogu bideari, elkarlana, elkar-ulertzea bilatzeari. Hona hemen sinatutako akordioa:



1. Helduen Euskalduntze Alfabetatzea elkarlanaren bidetik indar berriz bultzatu eta eremu desberdinetan AEKko euskaltegien normalkuntza eta garapena finkatzeko baldintzak finkatzeko xedez elkarriketa prozesua irekiko dute bi aldeek.
2. AEKK, irakaslearen beharrezko prestakuntzan oinarrituta, zerga obligazio eta Gizarte Segurantzarekikoak beteaz, bere euskaltegiak normaltze bidean paratu nahi dituela hitz ematen du.
3. HABEK, bere, aldetik, AEKren normalizatzeko asmoa ontzat emanez eta honen euskaltegiek gaurregun duten egoera kontutan izanik, prozesu hori burutu ahal izateko irakaslearen onarpenerako bitartekoak adosteko konpromezua hartzen du.
4. Itun hau sinatzeaz batera bitariko batzordea osatuko da, alde bakoitzeko lau kidek osatua. Bestelako partaiderik ere izan dezake batzordeak, bi aldeen oniritziarekin.  
Batzorde honek finkatuko ditu, beste puntu batzuen artean, Akordio hau sinatu eta bost hilabeteko epe luzagarrian, bigarren puntuko zehaztapenak, hirugarren puntuko irakaslearen onarpenerako bideak, gizarteak euskara ikasteko erakutsitako nahiari erantzuteko beharrezko ikusten diren euskaltegien zerrenda eta euskategi bakoitzaren ikasle-kopuru subentzionaagarria.
5. HABEK batzordean hitzartutako ikasle kopuruaren eta moduluaren arabera banatuko dizkie diru-laguntzak adosturiko euskaltegiei, prozesua burutzeko finkatzen den epean.
6. HABEK AEKko Santutxu, Barakaldo; Lauaxeta eta Audio euskaltegien homologazioagatik eta euskaltegi libreengatik, (125.000.000) pezetako diru-kopurua bideratuko dio AEKri 1994ko ihardunaldiaren barruan, hiru zati berdinetan banatuko dena: lehengo akordioa sinatuaz bat, bigarrena udan, eta hirugarrena urtea amaitu aurretik.

1994ko martxoak 3





Hona arte adostutakoa. Atea zabaltzea baino ez bada be jarrera aldaketa nabarmena erakusten dau. Ez bedi lotu keinu edota "elektoralismo" hutsean; Estulka ta gaixorik dagoen hizkuntza zahar honek arnasa berria behar dau; **Andoni Egañak** ederto ikusi eta kantatu eban ondoko bertsoetan:

(1)	(2)	(3)	(4)
Gora ta behera ibili gara	Gaztelania eta Frantsesa	Euskaltegiak loratu ziren	Gurdi berari eginez gero
Bilbo hirian barrera	nagusi dira kalean	ezker eskuln, gol ta behe	zuk tira eta nik bultza
arazo larri bezain hurbila	halere batzuk errezeloa	horiek ditugu gure hizkuntzan	malkarra latza izanagatik
ez al da Euskararena?	aekn egin ahalean	bihar-etziko zutabe	hasiko gara goruntza.
gure iparra, gure asmoa,	baldintza onak ipiniz gero	gure amets ta helburu denen	babes ditzagun euskaltegiak
helburuetan lehena	Euskal Herri zabalean	sustrai sustraian badaude	babes dezagun hizkuntza
denon artean eskuratzea	zer gozaturik badu edonork	diru-babesa zor litzaieke	horrela soilik lortuko dugu
denon eskubide dena.	Euskararen magalean.	nori begiratu gabe.	herri honen eraikuntza.

AEK kide bat





URKITZA IKASTETXEA





BAKIOKO ESKOLA





## TALDEEN BERRIAK

BAKIKO ABESBATZA

Bakio abesbatzak, udaberriko zikloari amaiera emateko datorren ekainaren 15ean Atxondon abestuko du, Elorrioko eta Barakaldoko abesbatzekin batera.

Udako kontzertuen aurrean Bakioko abesbatzak Udaletxearen eta Foru Aldundiaren laguntzaz, Bakioko aste musikala antolatuko du, urte honetan bere VIII. argitarepenean. Uztaillaren eta 24-arte ospatu da berau: Vigoko "Casa Blanca" korala, Mikel Laboaren erresetaldia eta ospe handia daukaten beste korala

batzuekin entretenigarri.



Beste Abuztuaren bat emango beraren eskeiniz. Ekintza

kontzertu bat eskeiniz.

alde batetik gean, kontzertu du abesbatzak, abestirik onenak

haundia dauka abesbatz honetako partaideentzat, azken hamar urte hauetako fruitua erakusten dutelarik.

GURE INBITAZIO ZABALA ESKEINTZEN DIEGU KORURA ETORRI NAHI DUTEN GUZTIEI.

## 94.-eko IKASKETA BIDAIA

1994.-eko martxoaren 23, 24 eta 25; Nafarroa eta Araba aldetik.

1- **23-an:** Bakiotik irten autobusez eta jarraian Gazteizerako bidea hartu gendun.

Hamaikak inguru Gazteizeko Parlamentua ikusi eta geroxeago karten museoa (Heraclio Fournier) pixkat begiztatu genuen.


Gazteizeko parkean jan, alde zaharra ikusi eta Lizarrarako bidea hartu genuen.

Lizarra ezagutu eta gure hotelera heldu ginen.

2- **24-an:** Egun osoa Iruñean emon genduen. Lehenik eta behin Planetarioa ikusiz, Ciudadelan jan eta arratsaldez alde zaharra ikusi.

Geroago zinemara joan ginen, pelikula bat ikustera eta horrela arratsaldea joan zitzaigun.

Azkenera hotelera itzuli ginen.



KAIXO

DANTZALE


GUZTIOI:

Euskal Herriko, Bizkaiko, eta baita ere, Taldeko neska mutil txikienak, dantzari txikien erakustaldi orokorrean parte hartu ondoren, orin, lasaiago gabiltz udako ekitaldiak prestatzen.

Baina ez ahastu zuk ere eurretan parte artu ahal dozula, bai dantzatzen, instrumentoren bat jotzen, proposamenekin... eta nola ez, bereziki ekitaldiak ikusten.

Modu batetara ala bestera itxaroten zaitugu.

*Itxas alde.*



3- **25-an:** Hoteletik irten eta dena batuta Valdezcaray-era joan ginen; elurretara.

Han ibili ondoren, jan eta berriz ere telesiletan jaitsi ginen.

Bidaiari amaiera emateko Santo Domingo de la Calzada ikusi eta Bakiorako bidea hartu gendun.

Ikasle guztiak oso ondo igaro dogu eta datorren urteko bidaiararte.

## HERRIKO HITZALDIAZ

E  
N  
N  
A  
T  
I  
E  
N  
Z  
A  
O  
G  
A  
ZE  
N  
N  
A  
T  
I  
E  
N  
Z  
A  
O  
G  
A  
Z

**A**pirilaren 29an mogimendu antimilitaristei buruzko "txarla-kolokio" delako bat ospatu zen kultur etxean Zintzirin batzartzen dan gazte taldearen ekimenez eta udaletxearen laguntzaz. Bertan objetore bat udaletxeak ekarria, M.U.A.K.-en (Munguiako antimilitaristak) ordezkari bat eta Ortuellako intsumisioen beste ordezkari bat egon ziren solasean.

Historia apur bat egin eban objetoreak gaurko egunotara heldu arte, eta antza bizi garen momentu honetan intsumisioa noiz baino pil-pilean dago, objezioa apur bat baztertuta geratuz, imposaturiko legearen kontrako guda zuzenago egiten delako desobedentziaren deklarazioaz, INTSUMISIOAZ.

Intsumisioaren mogimenduaren ekintzak Munguian, M.U.A.K.-eko ordezkariaren hitzetan, informatiboak dira eta gero beraien deskonformidadea salatzen adibidez Soietxera martxa rebindikatiboa eginez. M.U.A.K. mogimendu sozialak senbilidade desberdinak aglutinatzen bait dauz, lortu dauan gauzatariko bat izan da mozio antimilitarista "light" bat aprobatez PNV-ko udaletxeak, ez da gehiegi beste udaletxe batzuk epaiketak daukaten bitartean mozoen neurketari intsumiso deklaratzegaitik, baina gutxiago da ezer ez. Mozio honetan udaletxea ejerzitoen aurkako agertzen da eta intsumisioen postura apoiatzen duela dio, nahiz eta diren konsekuenteak eta ez daben beraien postura ondo definitzen.

Ortuellako intsumisioen kasuan intsumiso izatearen arrazoirik handiena abertzaletasuna da eta udaletxean PSOE partidu espainola dagoenez ez dute izan mozio bat lortzearen posibilidaderik, horretaz gain talde ezkertiar eta abertzaleak izanik udaletxearekin tirabiretan dagoz beti.

Gobernuaren erantzuna fenomeno honi errepresioa izan da kartzelaren bidez 3.gradua aplikatuz kasu askotan eta horri uko egin dautsenak errepresio dosi gehiago aplikatu egin jake. Intsumisioen guda baketsua izan da beti, eta askotan egurra jasan izan dabe.

Azkenez gogoratu behar doguna da justizia eta legea askotan ez dagozela loturik eta miliaren kasuan, hau begibistan dago, beraz, ez baduzu joan nahi intsumiso egin zaitez, ez gaitue denok "makoa"n sartuko eta.



## LEHIAKETA MUNDIALA

SAN JUANEN KANTAITA

Egu bai egun honek San Juan diruri  
Ez da San Juan bañan hala alunbra bedi.

Guazen San Juanera gaur arratsian  
Etorriko gerla biar goizian.

Guazen San Juanera berduratara  
Berduratara eta han egotera.

Juan nintzan Frantziara etorri maiatzian  
Zalditxo urdinian astuaren gainian.

San Juango iturriaren ondotik  
Zazpi iturri urre kainuetatik,  
Zortzigarrena metal zurietatik  
Zortzigarrena metal zurietatik.

San Juango iturrien dago ura berde  
Amurraitxo freskuak hantxen dirade,  
Lemizko eskuak eta gero musua  
San Juango iturriaren freskua !


Jesukristoren lengusuba da  
Aita San Juan Bautista,  
Aingervak dantzan dabilta,  
Debiltza baia dabilta  
San Juanen pozian dabilta !

Andra mutur maketsa  
Aingervak dantzan dabilta,  
Dabilta baia dabilta  
San Juanen pozian dabilta.


San Juan garagarriilian  
Denbora galantian !  
Maizik eta garik ez dagonion  
etxian.

Orai arte belar,  
Hemendik aurrera gari "

*Urdiain*



- 1.- NON OSPATU DA AURTENGO EUSKAL-HERRIKO DANTZARI EGUNA?
- 2.- IKURRINDANTZAK, BESTE IZEN BAT ERE BADAUKA, ZEIN DA IZEN HORI?
- 3.- GIPUZKOAKO NESKEN DANTZETAN, ZE GONA ERAMATEN DA, LABURRA EDO LUZEA?
- 4.- AIPATU EZAZUZ, ZULETINOKO 3 PERTSONAIEN IZENAK.
- 5.- ZEIN HERRIALDETAKOAK DIRA KAIXARRANKA, SAGAR DANTZA ETA ZOZO DANTZA?
- 6.- NON OSPATU DA AURTENGO BIZKAIKO DANTZARI EGUNA?
- 7.- AIPATU NAFARROAKO 2 DANTZA.
- 8.- NOLA DEITZEN DA, DANTZATZEN ARI DIREN NESKATOEKIN JOLASTEN DUEN PERTSONAIAK "EL CIEGO" DANTZAN?
- 9.- OTXAGI DANTZA, ZEIN INSTRUMENTOKIN JOTZEN DA, ALBOKAGAZ ALA DULTZAINAGAZ? ALA TXISTU-AREKIN?
- 10.- NONGO DANTZATAN JARTZEN DA ASIERAN ESKUIN OINA APUR BAT IREKITA ALDE BATERANTZ? BIZKAIKOETAN, LAPURDIKOETAN,...



(GOGORA: Utz itzazu erantzunak Udaletxean EUSKERA-BATZORDE izenean)